

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: **2008/94/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko urriaren 22koa, enpresaburuak kaudimenik ez duenean langileek izan beharreko babesari buruzkoa (Bertsio kodifikatua)**

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/94/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativa a la protección de los trabajadores asalariados en caso de insolvencia del empresario (Versión codificada)*». (Diario Oficial de la Unión Europea, L 283/36, 28.10.2008)

2008/94 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 283/36, 2008/10/28koa).

ZUZENTARAUAK

**2008/94/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,  
2008ko urriaren 22koa,  
enpresaburuak kaudimenik ez duenean langileek izan beharreko babesari buruzkoa  
(Bertsio kodifikatua)  
(Testu egokia EEEren ondorioetarako)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 137. artikularen 2. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan <sup>(2)</sup> araututako prozedura bete dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 80/987/EE Zuzentaraua, 1980ko urriaren 20koa, enpresaburuak kaudimenik ez duenean langileek izan beharreko babesari buruzkoa <sup>(3)</sup>, hainbatetan aldatu dute <sup>(4)</sup>, funtsean aldatu ere. Komeni da, arrazionaltasun eta argitasun handiagoa izateko, zuzentarau hori kodetzea.

(2) Langileen funtsezko gizarte-eskubideei buruzko erkidegoko gutunak, 1989ko abenduaren 9koa, 7. atalean ezartzen du barne-merkatuak Erkidegoko langileen bizi- eta lan-baldintzak hobetu behar dituela, eta hobekuntza horrek lan-erregelamenduko zenbait alderdi garatu beharko dituela beharrezkoa denean, kaleratze kolektiboko prozedurak edota porrotei buruzkoak, esate baterako.

(3) Beharrezkoak dira enpresaburuek kaudimenik ez dutenean soldatapeko langileak babesteko arauak, langile horiei gutxieneko babesa bermatzeko, eta, bereziki, kobratzeko dituzten hartzeak jaso ahal izateko. Izan ere, beharrezkoa da Erkidegoan garapen ekonomikoa eta soziala orekatua izatea. Helburu hori lortzeko, estatu kideek erakunde bat sortu behar dute, kaltetutako soldatapeko langileek kobratzeko dituzten hartzekoen ordainketa bermatzeko.

(4) Kaltetutako soldatapeko langile guztiak babes berbera izateko, egokia da enpresaburuaren kaudimen-gabeziako egoerak estatu kideek zehaztea gai horren inguruan dituzten lege-joeren arabera, eta, kontzeptu horretan sartzea, baita ere, kitapenekoak ez diren kaudimen-gabeziaren inguruko beste prozedurak ere. Testuinguru horretan, kaudimen-gabeziako egoera batek kaudimen-gabeziako hainbat prozedura dakartzanean, estatu kideek aukera izan behar dute prozedura bakar bat izango balitz bezala jorratzea erabakitzeko, berme-erakundearen ordaintzeko obligazioa zehazteko.

(5) Beharrezkoa da bermatzea zuzentarau hauen pean dauden langileak ez daitezela zuzentarau honetako aplikazio-eremutik at geratu: Kontseiluaren 97/81/EE Zuzentaraua, 1997ko abenduaren 15koa, UNICE, CEEP eta EEGE erakundeek egindako lanaldi partzialeko esparru-akordioari buruzkoa <sup>(5)</sup>; Kontseiluaren 1999/70/EE Zuzentaraua, 1999ko ekainaren 28koa, UNICE, CEEP eta EEGE erakundeen iraupen zehatzeko lanari buruzko esparru-akordioari buruzkoa <sup>(6)</sup>, eta Kontseiluaren 91/383/EE Zuzentaraua, 1991ko ekainaren 25koa, iraupen jakineko lan-harremana duten langileen eta aldi baterako laneko enpresetako langileen segurtasuna eta osasuna sustatzeko neurriak barne hartzen dituen <sup>(7)</sup>.

(6) Hainbat estatu kideetan lanean jardun eta kaudimenik ez duten enpresetako soldatapeko langileen segurtasun juridikoa bermatzeko eta, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegietan ezarritako jurisprudenzian oinarrituz, langile horien eskubideak indartzeko, komeni da zenbait xedapen onartzea, langile horiek kobratzeko dituzten hartzeak ordaintzeko eskumena zein erakundeek izango duen aurreikusteko. Halaber, xedapen horiek helburu hau ezarri beharko lukete estatu kideen administrazioen

---

(1) C 161EO, 2007.7.13koa, 75. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko ekainaren 19koa ( C 146 E EO, 2008.6.12koa, 71. or.), eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko irailaren 25koa.

(3) L 283 EO, 1980.10.28koa, 23. or.

(4) Ikusi I. eranskineko A eta B zatia.

(5) L 14 EO, 1998.1.20koa, 9. or.

(6) L 175 EO, 1999.7.10koa, 43. or.

(7) L 206 EO, 1991.7.29koa, 19. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

arteko lankidetzan: langileek ordaindu gabeko kredituak kitatzea, ahalik eta eperik laburrenean. Gainera, nahitaezkoa da gai horretako xedapenak zuzen ezartzen direla bermatzea, eta horretarako, estatu kideen arteko administrazio eskudunen arteko lankidetzaren aurreikustea.

(7) Estatu kideek mugak jarri ahal izango dizkiote berme-erakundearen erantzukizunari. Dena den, bat etorri beharko dute zuzentarauaren gizarte-helburuarekin eta kontuan eduki beharko dute kredituen lehentasuna desberdina izan daitekeela.

(8) Kaudimen-gabeziako prozedurak errazago identifikatzeko, batez ere nazioz haraindiko egoeretan, komeni da estatu kideek Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraztea zer kaudimen-gabeziako prozedura-motak eragiten duten berme-erakundearen esku hartzea.

(9) Estatu kideek ezin dute beren kasa behar bezala bete zuzentzarau honen xedea eta, beraz, xede hori hobeto lor daiteke Erkidegoaren esparruan. Horrenbestez, Erkidegoak neurriak har ditzake Tratatuaren 5. artikulua zehaztutako subsidiariorik gabeko printzipioa baliatuz. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioarekin bat, zuzentzarau honek ez ditu helburu hori lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

(10) Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzentzarau honen transposizioari eta aplikazioari buruzko txostena aurkeztu beharko dio, eta bereziki, estatu kideetan sortzen ari diren lan-mota berriei dagokienez.

(11) Zuzentzarau honek ez die eragin behar estatu kideek zuzentzarauak bere zuzenbidean txertatzeko eta zuzentzarauak aplikatzeko epeei dagokienez dituzten obligazioei (I. eranskineko C zatian daude zehaztuta).

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

### I. KAPITULUA

#### **APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

##### *1. artikulua*

1. Zuzentzarau hau soldatapeko langileei kobratzeko dituzten hartzekoei aplikatuko zaie; alegia, 2. artikuluko 1. paragrafoak dioenaren arabera kaudimen-gabeziako egoeran dauden enpresaburuarekin lan-kontratuak edo lan-harremanak dituzten langileen hartzekoei.

2. Salbuespen gisa, estatu kideek zuzentzarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi ahal izango dituzte soldatapeko langile-kategoria jakin batzuen hartzekoak, betiere, langile horientzako beste berme-mota batzuk badaude eta zuzentzarau honek langileei ematen dien babesaren parekoa ematen badiete.

3. Tokiko araudian horrelako xedapenen bat aplikatzen bada, estatu kideek zuzentzarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi ahal izango dituzte lanpostu hauek:

a) pertsona fisiko baten zerbitzura lan egiten duen etxeko langilea;

b) partila-soldata duten arrantzaleak.

##### *2. artikulua*

1. Zuzentzarau honen ondorioetarako, enpresaburua kaudimen-gabetzat joko da haren kaudimen-gabezian oinarritutako prozedura kolektiboa hasteko eskatzen bada (prozedura hori, estatu kide baten lege-, arau- eta administrazio-xedapenetan aurreikusita egongo da, eta enpresaburua botere guztiez edo ia guztiez gabetzea ekarriko du eta haren antzeko funtzioa beteko duen sindiko edo pertsona bat izendatzea, bai eta eskudun agintaritza ere), xedapen horiek betez:

a) prozedura zabaltzea erabaki bada, edo

b) enpresaren edo enpresaburuaren lantokiaren behin betiko itxiera egiaztatu bada, eta enpresaburuaren aktiboa nahikoa ez dela egiaztatu, prozeduraren irekiera arrazoitzeko.

2. Hitz hauen esanahiari dagokionez, zuzentzarau honek ez dio zuzenbide nazionalari eragingo: «soldatapeko langilea», «enpresaburua», «ordainsaria», «eskuratutako eskubidea» eta «eskuratzeko bidean dagoen eskubidea».

Hala ere, estatu kideek ezingo dituzte zuzentzarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi:

2008/94 EE Zuzentzaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 283/36, 2008/10/28koa).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) lanaldi partzialeko langileak, 97/81/EE Zuzentarauan adierazitako kontratu-mota dutenak;
  - b) iraupen mugatuko kontratua duten langileak, 1999/70/EE Zuzentarauan adierazitako kontratu-mota dutenak;
  - c) aldi baterako lana duten langileak, 91/383/EEE Zuzentaro 1. artikuluko 2. pragrafoan adierazitako kontratu-mota dutenak.
3. Estatu kideek ezingo dute lan-kontratuaren edo lan-harremanaren gutxieneko iraupen baten baldintza ezarri langileek zuzentaru honetako xedapenen onurak jasotzeko duten eskubideari.
4. Zuzentaru honek ez die galaraziko estatu kideei beste kaudimen-gabeziako egoera batzuetan dauden soldatapeko langileei babesa ematea —esate baterako, beste prozedura batzuen bidez ezarritako izaera iraunkorreko ordainketa-etendurak jasaten ari direnei babesa ematea—, 1. paragrafoan aipatutako prozedurekiko desberdinak badira eta zuzenbide nazionalean aurreikusita badaude. Hala ere, prozedura horiek ez dute eragingo gainerako estatu kideen erakundeei babes emateko obligaziorik, IV. kapituluaren adierazten diren kasuetarako.

### II. KAPITULUA

#### **BERME-ERAKUNDEEI BURUZKO XEDAPENAK**

##### *3. artikulua*

Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte berme-erakundeek ziurta dezaten lan-kontratuak edo lan-harremanak dituzten soldatapeko langileek kobratzeko dituzten hartzekoak ordaintzen direla, lan-harremana amaitzeak dakartzan kalte-ordainak barne, horrela xedatzen duenean barne-zuzenbideak. Dena den, 4. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Berme-erakundeak kontuan izango dituen hartzekoak estatu kideek zehaztutako dataren aurretik edo ondoren ezarritako aldiari dagozkion ordainsariak izango dira.

##### *4. artikulua*

1. Estatu kideek 3. artikuluan aurreikusitako berme-erakundeen ordainketa-obligazioak mugatzeko ahalmena izango dute.

2. Estatu kideek 1. paragrafoan aurreikusitako gaitasuna erabiltzen dutenean, zehaztuko dute zer epetako hartzekoak ordainduko dituen berme-erakundeak. Hala ere, ezin izango da lan-harremaneko azken hiru hilabeteetako ordainsariena baino epe laburragoa izan (3. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako data baino lehenagoko edo ondorengoko hiru hilabeteetako).

Estatu kideek erreferentziazko denbora-tarte batean sartu ahal izango dute hiru hilabeteko gutxieneko epe hori, eta erreferentziazko denbora-tarte hori ezingo da izan sei hilabete baino txikiagoa.

Gutxienez 18 hilabeteko erreferentziako denbora-tartea ezartzen duten estatu kideek zortzi astera mugatu ahal izango dute berme-erakundeak ordainduko dituen hartzekoen denbora-tartea. Kasu horretan, gutxieneko denbora-tarteak kalkulatzeko, soldatapeko langilearentzat komenigarrienak diren denbora-tarteak izango dira kontuan.

3. Estatu kideek berme-erakundeak egindako ordainketak mugatu ahal izango dituzte. Muga horiek ezingo dira izan zuzentaru honen gizarte-helburuarekin sozialki bat datorrena baino txikiagoak.

Estatu kideek ahalmen hori erabiltzen badute, Batzordeari adieraziko diote zer metodo erabili duten muga hori ezartzeko.

##### *5. artikulua*

Estatu kideek berme-erakundeen antolaketa-, finantzaketa- eta funtzionamendu-erak ezarriko dituzte, eta horretarako, printzipio hauei erreparatuko diete:

- a) erakundeen ondareak independentea izan beharko du enpresaburuen ustiapenerako kapitalarekiko, eta kaudimen-gabeziako prozedura batean ez bahitzeko moduan osatuta egon beharko du;
- b) enpresaburuek hura finantzatzen lagundu beharko dute, salbu eta finantzazio hori erabat bermatzen badute botere publikoek;
- c) erakundeek beti ordaintzeko betebeharra izango dute, finantzazioan laguntzeko obligazioa bete ala ez.

### III. KAPITULUA

2008/94 EE Zuzentaru (EBren Egunkari Ofiziala, L 283/36, 2008/10/28koa).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## **GIZARTE-SEGURANTZARI BURUZKO XEDAPENAK**

### *6. artikulua*

Estatu kideek ezarri ahal izango dute 3., 4. eta 5. artikulua ez aplikatzea gizarte-segurantzaren araubide nazionalaren ondorioz zor diren kotizazioei, edo aurreikuspen profesionaleko edo lanbide arteko aurreikuspeneko araubide osagarriaren kotizazioei, gizarte-segurantzaren araubide nazionalakiko ez gainera, alegia.

### *7. artikulua*

Soldata-kotizazioak ordaindutako soldatetatik deskontatu badira, estatu kideek neurriak hartuko dituzte, bermatzeko, enpresaburuak kaudimenik gabe geratu aurretik aseguru-erakundeei ordaindu ez dizkion derrigorrezko kotizazioak ez dakarkiola kalterik soldatapeko langileari; alegia, gizarte-segurantzaren araubide nazionalak betez ordaindu behar diren kotizazioak ez ordaintzeak ez dakarkiola langileari aseguru-erakunde horiek ematen dituzten prestazioak jasotzeko eskubidea galtzea.

### *8. artikulua*

Gizarte-segurantzako araubide nazionalak gain, aurreikuspen profesionalen eta lanbide arteko aurreikuspenen araubide osagarriak direla-eta, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte soldatapeko langileen interesak eta enpresaburuak kaudimenik gabe geratu den unetik aurrera enpresa edo enpresaburuaren jardura-zentroa utzi duten pertsonen interesak babesteko; alegia, zahartzaroko prestazioei dagokionez langileak eskuratutako eskubideak edo eskuratu behar zituen eskubideak babesteko, bai eta bizirik geratzen direnen aldeko prestazioei dagokienez ere.

## **IV. KAPITULUA**

### **NAZIOZ HARAINDIKO EGOEREI BURUZKO XEDAPENAK**

#### *9. artikulua*

1. Bi estatu kideren eremuan jarduten duen enpresa bat kaudimen-gabeziako egoeran badago (2. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako egoeran, alegia), erakunde honek izango du langileari hark kobratzeko dituen hartzeak ordaintzeko eskumena: langile horiek jardun ohi diren lurraldeko estatuko erakundeak.

2. Soldatapeko langileen eskubideak berme-erakunde eskudunari eragiten dion zuzenbidearen arabera izango dira.

3. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte, artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, honako hau bermatzeko: zuzentarau honetako 2. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera beste estatu batek eskatuta abian jarritako kaudimen-gabeziako prozeduretan hartutako erabakiak kontuan hartuko direla enpresaburuaren kaudimen-gabeziako egoera zehazteko (zuzentarau honetan ezarritako moduan).

#### *10. artikulua*

1. 9. artikulua betetzeko, estatu kideek informazio-trukea erraztuko dute herri-administrazio eskudunen eta/edo berme-erakundeen artean (3. artikuluko 1. paragrafoak adierazitako erakundeak), berme-erakunde eskudunari jakinarazteko, bereziki, zer hartzeko dituzten kobratzeko soldatapeko langileak.

2. Estatu kideek Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkiete beren herri-administrazio eskudunei eta/edo berme-erakundeei buruzko datuak. Batzordeak herritarren esku utziko du informazio hori.

## **V. KAPITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK**

#### *11. artikulua*

Zuzentarau honek ez die estatu kideei eragingo, haiek soldatapeko langileei gehien komeni zaizkien lege-, arau- eta administrazio-xedapenak ezarri eta aplikatzerakoan.

Zuzentarau hau ez da, inolaz ere, estatu kideetan soldatapeko langileei ematen zaien babesean atzeraka egiteko arrazoi moduan erabili ahal izango.

#### *12. artikulua*

2008/94 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 283/36, 2008/10/28koa).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Zuzentarau honek ez die eragingo estatu kideen ahalmen hauei:

- a) Gehiegikeriarik ez gertatzeko beharrezko neurriak hartzekoa;
- b) 3. artikuluan aipatutako ordainketa-betebeharra edo 7. artikuluan aipatzen den berme-betebeharra baztertzeko edo murriztekoa, baldin eta obligazioa betetzea ez badago justifikatuta dela lotura partikularrak daudelako soldatapeko langilearen eta enpresaburuaren artean, dela interes komunak daudelako haien arteko kolusio-itun baten bidez zehaztuta;
- c) 3. artikuluan aipatutako ordainketa-betebeharra edo 7. artikuluan aipatutako berme-betebeharra baztertzeko edo murriztekoa, soldatapeko langileak, bakarrik edo hurbileko senideekin batera, enpresaren edo enpresaburuaren establezimenduaren funtsezko zati baten jabe badira eta enpresaren jardueran eragina handia badute.

### *13. artikulua*

Estatu kideek Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkiete zuzentarau honen aplikazio-eremuko kaudimen-gabezia nazionalen prozedurak. Halaber, kaudimen-gabezia horiei buruzko aldaketa guztiak ere jakinaraziko dizkiete. Batzordeak *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko ditu jakinarazpen horiek.

### *14. artikulua*

Estatu kideek Batzordeari helaraziko diote zuzentarau honek arautzen duen eremuan onartzen diren lege-, arau- eta administrazio-mailako xedapenen testua.

### *15. artikulua*

Beranduenera ere 2010eko urriaren 8an, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztu beharko dio artikuluko hauen transposizioari eta estatu kideetan duten aplikazioari buruzko txostena: 1., 2., 3., 4., 9. eta 10. artikulukoak, 11. artikuluko bigarren paragrafoa, 12. artikuluko c) idatz-zatia, eta 13. eta 14. artikulukoak.

### *16. artikulua*

80/987/EEE Zuzentaraua indargabetu da —I. eranskinean adierazitako ekintzen bidez aldatua—. Nolanahi ere, estatu kideek bete egin beharko dute zuzentaruaren zuzenbide nazionalerako transposizio-eppei dagokienez dauzkaten betebeharrak (I. eranskineko C zatian adierazita daude).

Indargabetutako zuzentaruari egindako erreferentziak zuzentaru honi egindakotzat hartuko dira, eta II. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

### *17. artikulua*

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei eguneko epean sartuko da indarrean.

### *18. artikulua*

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

*Europako Parlamentuaren izenean Lehendakaria* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean Lehendakaria* J.-P. JOUYET

2008/94 EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 283/36, 2008/10/28koa).

## ANEXO I

**PARTE A****Directiva derogada con sus modificaciones sucesivas**

(contempladas en el artículo 16)

Directiva 80/987/CEE del Consejo (DO L 283 de 28.10.1980, p. 23)

Directiva 87/164/CEE del Consejo (DO L 66 de 11.3.1987, p. 11)

Directiva 2002/74/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (DO L 270 de 8.10.2002, p. 10)

**PARTE B****Acto modificador no derogado**

(contemplado en el artículo 16)

Acta de adhesión de 1994

**PARTE C****Plazos de transposición al Derecho nacional y de aplicación**

(contemplados en el artículo 16)

Directiva	Plazo de transposición	Fecha de aplicación
80/987/CEE	23 de octubre de 1983	
87/164/CEE		1 de enero de 1986
2002/74/CE	7 de octubre de 2005	

## ANEXO II

## Tabla de correspondencias

Directiva 80/987/CEE	Presente Directiva
Artículo 1	Artículo 1
Artículo 2	Artículo 2
Artículo 3	Artículo 3
Artículo 4	Artículo 4
Artículo 5	Artículo 5
Artículo 6	Artículo 6
Artículo 7	Artículo 7
Artículo 8	Artículo 8
Artículo 8 <i>bis</i>	Artículo 9
Artículo 8 <i>ter</i>	Artículo 10
Artículo 9	Artículo 11
Artículo 10	Artículo 12
Artículo 10 <i>bis</i>	Artículo 13
Artículo 11, apartado 1	—
Artículo 11, apartado 2	Artículo 14
Artículo 12	—
—	Artículo 15
—	Artículo 16
—	Artículo 17
Artículo 13	Artículo 18
—	Anexo I
—	Anexo II